

## **FUNTSEZKO BALIABIDEAK**

Enpresa hau aurrera eramateko, beste edozertarako bezala, ezinbestekoak dira baliabide batzuk, esaterako; baliabide fisikoak, baliabide intelektualak, giza baliabideak eta finantza baliabideak.

Gure kasuan **baliabide fisikoak** honako hauek dira: lanerako erabiliko dugun ordenagailua, ikastetxeekin kontaktatzeko erabiliko dugun mugikorra eta garraiatzeko erabiliko dugun autoa. Ikastetxeetan bertan egingo dugunez lan, ez dugu bulego propiorik izango.

**Baliabide intelektualei** dagokionez, gure artean ardurak banatuko ditugu: Ane sare sozialetan ondo moldatzen denez, berak kudeatuko ditu sare sozialak eta sortuko dugun webgunea; Elene kontuak egiten eta administrazioan ona denez, berak eramango ditu kontuak eta alde hortatik lagunduko du; Aiorak esperientzia pertsonalagatik lagundu dezakeenez, bezeroekin harremana berak izango du gehienbat; eta azkenik, Jugatx hizlari trebea denez, bera arduratuko da ikastetxeetara deitu eta ekintzak proposatzeaz.

**Giza baliabideei** dagokienez, profesionalen (psikologo) eta antsietatea izandako esperientziadun pertsonekin egingo dugu lan. Beraz, hauek eskaintzen dizkiguten ezagutzak eta ikasketak erabiliko ditugu entzuleei zuzentzeko.

**Finantza baliabideen** aurrean, enpresa osatzen dugun guztion aurrezkiak izango dira, baina bankuei ere eskatuko beharko diegu mailegu bat enpresan inbertitzeko eta aurrera eramateko. Mailegua eskatzerako orduan banku etiko batera joko dugu. Izan ere, uste dugu gure enpresak funtzio sozial garrantzitsua betetzen duela eta mota honetako bankuan dirua eskatuz gero, erraztasun gehiagoko baldintzak eskainiko genizkigula.